

Foru Aldundiak N-124 errepidea Armiñon eta Berantevilla artean bikoizteko proiektua lizitatu du 16,5 milioi euroan

Lanak ziur aski 2022ko udaberrian hasiko dira

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 13a.- Arabako Foru Aldundiak 16,5 milioi euro inbertituko ditu N-124 errepidea, Armiñongo N-124 eta A-1 errepideen arteko lotunetik Berantevillara artean, bikoiztu eta autobia bihurtzeko.

Foru Gobernu Kontseiluak gaur onetsi du proiektu horren lizitazioa, aipatutako aurrekontuarekin, eta egikaritzeko gehienez ere 30 hilabeteko epea izango da. Esleipena 2022. urte hasieran egingo da, eta lanak, ziur aski, datorren udaberrian hasiko dira.

Proiektu horretan jaso da N-124 errepidea bikoiztea 25,5 kilometro puntutik (N-124 eta A-1 errepideen arteko lotunea) 28 kilometro puntura (Lacorzanillako industrialdea). Lan horiei esker, 7,5 metroko zabalerako bi errei (2 x 3,75 metro) egingo dira noranzko bakoitzeko, bai eta 2,5 metroko kanpoko bazterbideak eta metro bateko barruko bazterbideak ere.

Gaur egungo errepidea zerbitzu bidetzat erabiliko da Lacervillako industrialdera sartzeko, han hainbat enpresa garrantzitsu baitaude (Avinorsa, Cerámicas Marlo, Hutchinson eta abar). Lacervillarekiko lotunea Lacorzanillako industrialdearekin ere lotuko da. Laborantza finketara eta Pirotecnia Valecea enpresara sartzeko zerbitzu bide bat ere egongo da.

Azkenik, proiektuan aurreikusi da Zambranako lotunea osatzea, Logroñotik etortzean herri horretara sartu ahal izateko eta handik Gasteizerantz irten ahal izateko.

Jarduketa horrek osatu egingo du joan den legegintzaldian N-124 errepidea Berantevilla eta Zambrana artean bikoizteko eta Berantevillako saihesbidea zerbitzuan jartzeko egin den lana. Gaur lizitatu den proiektua egikaritzen denean, ia sei kilometroko autobia tartea izango da, eta segurtasun, erosotasun eta arintasun handiagoa eskainiko zaie egunero errepide hori erabiltzen duten 10.000 ibilgailu ingururi.

Proiektuak, gainera, A-1 eta AP-68 errepideen arteko konexioa hobetuko du N-124 errepidearen bidez, bai eta Armiñon eta Berantevillako industrialdeetarako sarbideak ere, eta nekazaritzako ibilgailuak ibili ahal izatea eta eremu hartako finketarako lotura ere bermatuko du.

Foru Aldundiak 500.000 euro emango ditu Arabako 325 saltegiari laguntzeko

Herri ertain eta txikiak eta ehungintza eta oinetakoen azpisektoreko negozioei emandako laguntzak lehenetsi dira

Arabako Foru Aldundiak 500.000 euro emango ditu, guztira, Arabako 325 saltegiarentzako dirulaguntzak emateko –barne dira publikoarentzako salmenta puntua duten artisauak eta bidaiari agentziak–, COVIDaren osasun krisiari aurre egiteko azken hilabeteotan eginiko aparteko gastuei aurre egiteko.

Foru Gobernu Kontseiluak gaur onetsi du aparteko laguntza deialdi hori. Establezimendu bakoitzeko batez besteko dirulaguntza kopurua 1.535 eurotik gorakoa da, eta sei gastu mota finantzatzeko erabiliko da, kasu bakoitzaren arabera: errentamenduak; lokala ordaintzeko hipoteka maileguak; autonomoen kuota; elkarte sektorialetako afiliazioa; COVIDaren aurkako segurtasun produktuak; pandemiari lotutako aholkularitza, eta publizitatea.

Laguntza lerro horrek lehentasuna ematen dio Arabako herri txiki eta ertainetako txikizkako saltegiari laguntzari, laguntza gutxiago jasotzen dituztelako eta mugikortasun murrizketek gehien kaltetu zituztelako, bai eta ehungintzaren, oinetakoen eta osagarrien azpisektoreetako establezimenduei ere. Azpisektore horiek besteek baino beherakada handiagoa izan dute salmentetan, pandemia garaian.

Deialdia izapidetzean eta ebaztean irizpide horiek aplikatzearen ondorioz, txikizkako saltegi onuradunen ia bi heren Arabako herri txiki/ertainetan eta landa eremuetan daude (196 establezimendu), eta negozio onuradunen heren bat baino pixka bat gehiago baino ez dago Gasteizen (129 establezimendu).

Horiek horrela, negozio onuradunetatik 66 Laudion daude, 50 Amurrion, 16 Agurainen, 8 Guardian, 8 Aiaran, 5 Bastidan, 4 Artziniegan, eta gainerakoak, herri hauetan: Dulantzi, Aramaio, Arraia-Maeztu, Barrundia, Berantevilla, Kanpezu, Burgelu, Eltziego, Iruña Oka, Lantaron, Lapuebla de Labarca, Legutio, eta abar.

Bestalde, eta azpisektoreen arabera, hiru saltegi onuradunetatik bat modaren, oinetakoen eta osagarrien azpisektorekoa da (104). Nabarmentzekoak dira, halaber, ile apaindegiak eta apaindegiak (62), etxeko ekipamendua (27), elikagaiak eta edariak (26), harategiak (13) eta okindegiak eta gozotegiak (12).

Aparteko deialdi hau Arabako Foru Aldundiak tokiko merkataritzari laguntzeko garatutako estrategia bereziaren barruan sartzen da, kontuan hartuta osasun krisiak gehien eragindako sektoreetako bat dela. Estrategia hori gastu eta inbertsiorako eta landa merkataritzarako laguntza programetan islatzen da, eta aurten 840.000 euroko aurrekontua dute.

Estrategia honen helburua da Arabako herri eta hirietako ekonomian funtsezkoa den sektore baten jarduerari eta enpleguari eusten laguntzea.

Arabako Foru Aldundiak eta UPV/EHUK lankidetzak hitzarmen bat sinatu dute ezagutzak partekatzeko

Hitzarmena Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren ekimen baten zati da, eta Estatuan Itun Ekonomikoaren eta Arabako zerga sistemaren berri ematea du helburu

Foru Gobernu Kontseiluak onespena eman dio gaur Arabako Foru Aldundiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) arteko lankidetzak hitzarmena izenpetzeari, hurrengo lau urteetan ezagutzak partekatzeko.

Hitzarmena Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren ekimen baten zati da, eta helburu du Estatuko hainbat eragile eta talderekin elkarlanean aritzeko mekanismoak ezartzea, Itun Ekonomikoaren eta Arabako zerga sistemaren inguruko ezagutza partekatzea sustatzeko.

Era berean, hitzarmen honen bidez, Arabako Foru Ogasunean zerbitzuak ematen dituzten langileen prestakuntza sustatzeko foru sailaren helburuetako bat beteko da.

Izan ere, Arabako Foru Aldundiak bere langileak unibertsitatera bidaliko ditu urtero, Ekonomia Itunari edo lurraldeko zerga sistemari buruz unibertsitateari interesatzen zaion gaiaren berri emateko. Eta unibertsitateak bere irakasle taldeko kideak bidaliko dizkio Arabako Foru Aldundiari, foru ogasunari interesatzen zaizkion gaien berri eman dezaten.

Hitzarmenak lau urteko iraupena izango du, eta ezartzen du Foru Aldundiak bere gain hartuko dituela berak proposatutako jardunaldien kostuak, eta unibertsitateak ere gauza bera egingo du proposatzen dituen jardunaldiei dagokienez.